




# Esklerosi anizkoitzarentzat jomuga terapeutiko berriak

Garazi Andonegi Beristain

Elhuyar

**E**sklerosi anizkoitza nerbio-sistema zentralari eragiten dion gaixotasun sendaezina da. Gaixotasun neurologiko arruntena da heldu gazteen artean eta, normalean, 20 eta 40 urte bitartean azaleratzen da. Espainian 30.000 pertsona baino gehiagori eragiten die, eta milioi bat baino gehiago dira mundu zabalean kaltetuak. Gainera, gaixotasunaren bilakaera asmaezina da eta gaixo bakoitzean bide ezberdina hartzen du; batzuetan, ia sintomatologiarik ez du azaltzen; besteetan, beriz, perlesia osoa eragitera irits daiteke.

Gaixotasun larri honek burmuineko eta bizkarrezurreko substantzia zuriari eragiten dio, mielina gehien duenari, hain zuzen ere. Beraz, mielina zer den eta gaixotasunari nola eragiten dion jakitea beharrezkoa da.



Argazkian oligodendroitoak ikusgai. Oligodendroitoak mielinen ekoizleak dira.

C. MATUTE

## Esklerosi anizkoitza eta mielina

Mielinaren funtzioa neuronen axoiak edo nerbio-luzakinak babestea da. Babes-funtzio horretaz gain, mielinak neuronaren arteko komunikazioan ere eragin garrantzitsua du. Horrela, mielina nahikoa dagoenean neuronaren arteko komunikazioa azkarra izaten da; baina, zer gertatzen da mielina falta denean? Lehenengo ondorioa da neuronaren arteko komunikazioa moteltzen dela, hau da, axoiak jada ez dira gai nerbio-kinadak bizkor garraiatzeko. Axoi horiek komunikatzeko gaitasuna galtzen dutenean hil egiten dira, eta axoiaren heriotzak neuronaren beraren heriotza eragiten du. Beraz, mielinen gabeziak nerbio-sistema zentralako neuronaren heriotza eragiten du.

Baina zerk eragiten du mielinen galera? Galdera horren erantzunetako bat oligodendroitoekin egindako ikerketa honetan egon daiteke.

## Aurkikuntza: oligodendroitoen heriotza

Oligodendroitoak nerbio-sistema zentralan dauden zelula garrantzitsuak dira. Zelula horiek mintzean dituzten hartzailak batzuen bidez kitzikatzen dira, eta, ondorioz, mielina sintetizatzen dute. Beraz, oligodendroitoak mielinen ekoizleak dira.

Hala ere, badute berezitasun bat: gehiegi kitzikatzen badira, mielina gehiago ekoiztu beharrean, asebate, kolapsatu eta hil egiten dira. Gehiegizko kitzikapen horrek sortutako heriotza da, hain zuzen ere, ikertzaile-talde honek egindako aurkikuntza berria.

## Jomuga terapeutikoak

Aurkikuntza honek jomuga terapeutiko berriak aurkitzeko bidea ireki du eta jada entsegu klinikoan lehenengo fasean daude azterketak. Tratamendu posibleetako bat gehiegizko kitzikapenari aurre egingo dioten substantziak aurkitzea izan daiteke, ezagunak baitira oligodendroitoak kitzikatzen dituzten molekula, baita molekula horien hartzailak ere. Beraz, doitutako substantzia inhibitzaileek heriotzatik salba ditzakete oligodendroitoak eta, horrela, agian mielinen galera saihestu daiteke.

Horrek milaka gaixorentzat bizi-kalitate hobea baten esperantza dakar; izan ere esklerosi anizkoitzak gaixoen ekonomian eta sendian eragin larriak izaten ditu. Hala ere, beti konstante hartu behar da oraindik urrun gaudela gaixotasunaren guztizko sendabidea lortzetik, baina gaixotasunaren inguruko aurkikuntza oro aurrerapauso handia da. **□**

### Proiektuaren izenburua

Oligodendroitoen heriotza eta esklerosi anizkoitza.

### Helburua

Esklerosi anizkoitzarentzat jomuga terapeutiko berriak aurkitzea.

### Zuzendaria

Carlos Matute.

### Lan-taldea

V. Sanchez, E. Alberdi, M. Domeq, F. Perez, A. Perez, A. Vallejo, G. Ibarretxe, E. Etxeberria, I. Torre.

### Saila

Neurozientzien Saila.

### Fakultatea

Medikuntza eta Odontologia Fakultatea.

### Finantzazioa:

EHU, Eusko Jaurlaritza, Fundación La Caixa, Iberdrola, Gizarte Segurantzaren Osasun Inbertsioetarako Diru-poltsa.